BALEIKE

KOMAIAKO HILABETEKARIA
256. ZENBAKIA. EURO BAT
2016KO UZTAILA-ABUZTUA
www.baleike.eus

ALEX URANGA

GARAIPENAREN APAR GOZOA

MARIA LOPEZ, KAMERA ESKUAN, RIORA BIDEAN

ABURTUA

XLV. Dinastia Etxabe Pilota txapelketa
Aitzuri pilotalekuan, 22:00etan
16an eta 18an Finalaurrekoak
25ean Finalak

6an Gala gaua
12an Euskal jai eguna
20an Kuadrilla eguna
16:00, Itzurun-Arranpla igeriketa zeharkaldia
17:30, eskubaloi triangularra (Bidasoa, Benidorm, Zarautz)
24-28 Oikiako jaiak

Zumaiako Udala

Uztailak 31, igandea
19:00 Oxford aretoan
Jaialdiaren aurkezpena **Klarinete kontzertua: La Caña Quartet.**

Abuztuak 1, astelehena
20:30 Parrokian
Sapere Aude Sinfonietta + San Pedro abesbatza, Fernándo Velázquezekin.

Abuztuak 3, asteazkena
22:30 Oxford aretoan
Zinea eta Musika: *Un Piano de Cine,* **Jorge Luis Zulueta.**

Abuztuak 4, osteguna
20:00 Odietan
Dantza: *Fusioak,* **Aukeran** dantza konpainia.

Abuztuak 5, ostirala
22:30 Aita Mari aretoan
Olatz Zugasti.

Abuztuak 7, igandea
20:00 Komentuan
Joaquín Asiain, tenorea + **Kanako Kimura,** pianoa.

Abuztuak 10, asteazkena
20:00 Oxford aretoan
Mundu Berria, **Tenpora.**

Abuztuak 11, osteguna
20:30 Parrokian
Donostiako Musika Hamabostaldia
Al Ayre Español, Eduardo López Banzok zuzendua.

Abuztuak 13, larunbata
22:30 Aita Marin
Scat, **Ainara Ortega.**

Abuztuak 15, astelehena
19:00 Odietan hasita
Haurrentzat festa: *Txorotxaranga.*

ZUMAIAKO 2016 Musika Jaialdia

Uztaila

Eta gozatu Zumaiako merkealdia.

Zumaiako Udala

CAJA RURAL

BALEIKE 256

Tony D'Andrea

13
baleike+
ALEX URANGA: GARAIPENA ITACOATIARAN

4
herritik kanpo
AMAIA ZUBIA

7
puri-purian
TONY TRUMAN BREXITAREN INGURUAN

19
kirolak
PULPOKO ZUZENDARITZAREN AGURRA

23
elkarrizketa
MARIA LOPEZ

26
ondarea
MANTZIZIDORTARREN LEINUA

30
agenda
UZTAILA-ABUZTUA-IRAILA

HERRI ALDIZKARIA
Foronda Kultur Etxea
Odieta, 2
tel.: 943 86 15 45
e-maila: aldizkaria@baleike.com
Argitaratzailea
Baleike Kultur Elkartea
e-maila: elkartea@baleike.com
Administrazio batzordea: Agustin Zubimendi eta Xabier Azkue.
Erredakzio taldea: Imanol Azkue, Ainara Lozano Lasa, Aitor Manterola, Maialen Odriozola, Juan Luis Romatet, Miriam Romatet, Peio Romatet, Arnaitz Rubio, Jon Urbieta, Izaskun Urbieta eta Gorka Zabaleta
Diseinua eta maketazioa: Roberto Gutierrez
Hizkuntz zuzenketa: Imanol Azkue
Publizitatea
tel. 943 86 15 45
azubimendi@baleike.com
Inprimategia
Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Tirada
800 ale
Lege gordailua: SS-405/94
ISSN: 1136-8594

Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

TOKIKOM

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:

Gipuzkoako Foru Aldundia
Zumaiako Udala
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
kutxa
kutxabank

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

AMAIA **ZUBIA**

"Hemengo lantokietan ikasten eta hobetzen jarraitzeko aukera dago"

Ingelesa ikasteko helburuarekin, 19 urte zituela joan zen Amaia Zubia Londresera. Printzipioz, urte bete pasatzeko asmoarekin egin zituen maletak Ingalaterrako hiriburura, baina estantzia asko luzatu du; izan ere, 21 urte daramatza han. Denboraldi luze honetan familia bat osatu du, eta enpresa psikologia eta coaching gaietan espezializatu da.

TESTUA: IZASKUN URBIETA

Ingelesa ikasteko asmoarekin, eta jende askok egiten duen bezala, *au-pair* joan zinen Ingalaterrara.
Bai, halaxe da. Aurrez beste zumaiar bat egondako etxe batera joan nintzen lehendabizi. Sei hilabete egin nituen hango familia batekin *au-pair*. Bakarrik etorri nintzen, eta nire ingeles maila ez zen oso ona. Baina beharra bezalakorik ez dago ikasteko…

Ondoren, ostalaritzan aurkitu zenuen lana, hain zuzen, *Pret a Manger* izeneko jatetxe denda multinazionalean. Nolako enpresa da?
Duela 30 urte Ingalaterran sorturiko enpresa bat da. Jatetxe horietan egunero sandwichak egiten dituzte, eta horretaz gain, kafea eta edariak ere saltzen dituzte. Hasieran, bezeroak eskatu ahala egiten zituzten sandwichak, baina ikusirik denbora luze egon behar zutela zain, eta bezeroentzat garrantzitsuena denborarik ez galtzea zenez, aurrez egiten hasi ziren. Saltzen den jatekoaren % 70 eramateko izaten da, bezero gehienek janaria erosi eta lantokira eramaten dute han jateko asmoz.

Ingalaterran jaio zen enpresa bat da. Baina nazioarte mailan ere bere egoitzak ditu. Non dago zabalduta?
Denborarekin konpainia hau asko handitu da, eta 280 denda ireki dituzte Ingalaterran, 12 Frantzian, 60 Ameriketako Estatu Batuetan, bana Shangain eta Dubain… Gaur egun ekialdeko herrietara begira daude, oso merkatu interesgarria izan daitekeelakoan.

> ‘‘Lagunarte internazionala daukat inguruan, bakoitza munduko punta batekoa, baina lagunarte jatorra’’

Izen-abizenak: Amaia Zubia
Adina: 40 urte
Ikasketak: Enpresa Psikologia
Hizkuntzak: euskara, gaztelania eta ingelesa
Akordatzen naiz bereziki…: familia eta lagunez aparte, hauetaz akordatzen naiz bereziki: amama Blankirekin kafea hartzea, Urbiako mendi buelta, Zallako tortilla, izekoren aldamenean Gabon Koruan kantatzea, kresal usaina, Olagarro Eguna, ostarrenak, kaletik joandakoan “epa” batekin kasu egitea...

Zer eginkizunetan hasi zinen enpresa horretan?
Hasieran sukaldean hasi nintzen lanean. Gero, denda bateko buru izan nintzen, eta aurrerago, zonako arduradun izatera iritsi nintzen.

Azkenean baina, ardura handiagoko lan batean jarri zintuzten.
Pixkanaka lan eginez eta ikasiaz, ofizinetako giza baliabideetako arloan sartu nintzen. Azken 13 urteetan, aldiz, enpresako Academyko buru lanetan aritu naiz. Bertan, alde batetik, nire ardurapean izan ditut zazpi pertsona, eta, beste aldetik, Erresuma Batuko denda guztietako kurtsoen ardura izan dut. Lantoki horretan 10.000 pertsonak lan egiten dute, eta maila guztietako kurtsoak ematen zaizkie dendariei, dendako buruei... Lidertzako kurtsoak, esaterako. Enpresa horretan 19 urtez egin dut lan, 2015eko abuztua arte.

Zer iruditzen zaizu Ingalaterrako lan eredua?
Ingalaterran dagoen lan sistema asko gustatzen zait, lantokietan ikasten eta hobetzen jarraitzeko aukera dagoelako. Lanean nengoen bitartean kurtso batzuk egin nituen: Master NLP (Neuro Linguistika Programa), Coaching, Personality Profiles (Pertsonalitate Profilak), Apply Neuroscience (Neuro Zientzia Aplikatua), Lumina Learning Practitioner (Lumina Ikasketa Praktikantea), Hypnosis (Hipnosia)... Eta ikusirik aldaketa politiko, ekonomiko, sozial eta teknologikoei esker gaur eguneko lantegiek presio handia zutela, konturatu nintzen zerbait gehiago ikasi behar nuela nire lana hobeto egiteko.

Horrela, zure lana utzi eta master bat ikasten hasi zinen.
Hori da. Lana utzi eta Business Psychology (Enpresa Psikologia) izeneko master bat ikasten hasi nintzen Websmistereko Unibertsitatean. Master hau bukatzean, nire asmoa *freelance* moduan (neure kontura) lan egitea izango da Coach eta Business Psychologist (enpresa psikologo) lanetan.

Non bizi zara? Nolakoa da ingurunea?
Londresko Woodford Greenen bizi naiz. Oso toki atsegina eta lasaia da hiri handi batean egoteko. Nire etxetik Londresko zentrora ordubete dago. Hemen ere lagunarte atsegina daukat; internazionala, bakoitza munduko punta batekoa da, baina lagunarte jatorra daukagu.

Familia ere hor osatu duzu. Eta jakin dugunez, Zumaiara etortzea asko gustatzen zaie.
Horrela da, bai. Bi seme ditut, Yanis eta Noah, eta asko gustatzen zaie Zumaiara joatea. Bertan lagun pila bat daukate, eta euskaraz eta gaztelaniaz egiten dutenez, oso ondo moldatzen dira. Oporrak dituzten bakoitzean saiatzen gara hor izaten. Nahiz eta nik ezin joan nahi adina, nire semeak joaten dira, eta oso ondo pasatzen dute. Oso oroitzapen onak dituzte, beti galdezka daude zenbat lo egin behar dituzten Zumaiara joateko.

Zer moduz daramazu familia osatu baina, aldi berean zure familiarengandik urruti bizitzea?
Familiagandik urrun egotea ez da batere erraza egiten, baina gaur egun Skypeari esker, gauero hitz egiten dugu etxekoekin, eta elkar ikusteak asko laguntzen du.

Inoiz bueltatzea pentsatu duzu?
Momentuz ez dut bueltatzeko asmorik, baina halako batean gustatuko litzaidake denbora gehiago Zumaian pasa ahal izatea. Bizitzak esango du noiz eta nola... ■

PUBLIZITATEA

7 MARES
7 MARES Izoztuak
Arrain eta mariskoak
Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak
Zuloaga plaza, 1
tel. 943 862 309

a3
Alai auzategia 8
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Diseinu zerbitzuak
tel.: 943 14 31 22
Kopiak eta materiala
tel./Faxa: 943 14 31 20
www.a3zumaia.com
a3@a3zumaia.com
a3 kopia eta diseinu zerbitzuak

AL-ANON
Alkoholikoen senide eta lagunen elkartea
Tel. 650 265 963
Ordutegia: asteazkenetan, 20:00-22:00
larunbatetan, 19:00-21:00

Agurtzane Okindegia
Erribera 2 • 943 861 280

AIZPURUA
LIBRUDENDA
Aita-Mari auzategia, 17
tel. 943 861 569

ALBERDI
dekorazioa
696 726188
943 143261
• Eskaiola
• Pladur-a

TTAKUN TABERNA
Izustarri, 3
tel. 943 865 289

ÜKENDU
PARABOTIKA
BELARDENDA
Aitziber Etxeberria Garro
Farmazialaria
Kantauri plaza, 2 943 860 992 www.ukendu.com

ATARI
TABERNA
Pintxo bereziak eta olagarro-zopa
Ardantzabide, 16 Tel. 943 860 000

Ardantzabide
ALTZARIAK-AROZTEGIA
www.ardantzabide.com
Denda: Txomin Agirre, 4
Tel.: 943 862 532
Aroztegia: Santiago, 40
Tel.: 943 861 631

ARGISUN
ENERGIA-KONPONBIDEAK
•Berokuntza sistemak
•Girotzea
•Iturgintza
•Energi berriztagarriak
•Eraginkortasun energetikoa
Basadi auzategia 5
tel. 943 861 995
www.argisun.com
info@argisun.com

OKINDEGIA Arkupe
Nagusia, 2 - tel. 943 861 521
ZUMAIA
OGI-EDER

ARRUTI
Baltasar Etxabe z/g
Zumaia 943018428

BOSCH Service
Bosch Car Service
Autos Zumaia
Gasolina injekzioa
Diesel injekzioa
Elektrizitatea/Elektronika
Piztea
Balaztak, ABS, ESP
Mantentze mekanika
Motorraren mekanika
Hozte sistemak
Urola plaza 3-5
Tel. 943 861 485
autoszumaia@bosch-bcs.com

Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN ZERBITZUAK S.L
San Isidro, 25
20749 Arroa
tel./faxa 943 148 306
bakun@euskalnet.net

Basadi
albaitaritza
Albaitaria
Iñaki Garmendia
Basadi, 7, behea - tel. 943 143 310
veterinaria@basadiclinvet.com
www.basadiclinvet.com
Golzez: 11-13 / Arratsaldez: 16-19:30 / Astelehen golzean eta larunbatean itxita
Larrialdietarako: 605 726 707
Etxez etxeko zerbitzua

BASUSTA
erretegia · asador
José Blázquez
Patxiko Etxezarreta, 25
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel.: 943 86 20 73
943 86 04 38
asadorbasusta@hotmail.com

Braky´s
Okindegia Kafetegia
Izaga kalea, 2
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tl.: 943 57 07 79
Móvil: 649 967 289

Tony **TRUMAN** | Zumaian erretiratutako ingelesa

Erresuma Batuko biztanleek Europar Batasunetik irteteko erabakia hartu zuten ekainaren 23an egindako erreferendumean. *Brexit* bezala ezagutu da erabaki hori. Bere bizitza profesionalean eta pertsonalean Euskal Herriarekin harreman handia izan duen eta gaur egun Zumaian bizi den ingeles batekin, Tony Trumanekin, hitz egin dugu bozketaren eta erabaki horrek sor ditzakeen eraginen inguruan.

"Brexitarekin ez dakigu zer gertatuko den; trantsizio garai arriskutsu batean gaude"

TESTUA: JUAN LUIS ROMATET
ARGAZKIAK: ARNAITZ RUBIO APREA

Ezusteko galanta eman zuten britainiarrek ekainaren 23ko erreferendumean. Inkesta guztien arabera, *Exit* (Irten) eta *Remain* (Geratu) nahikoa berdintuta zeuden. Zenbaketa uste baino gehiago atzeratu zen eta oheratzerako orduan artean ez ziren ezagutzera eman. Egunean bertan egindako azken inkestaren arabera, Europar Batasunean geratzeko aukera zihoan aurretik. Eguzkia ateratzerako, baina, zenbakiak iraули egin ziren eta Batasunetik irteteko aukerak irabazi zuen bozken % 52rekin. "Emaitzak lekuz kanpo utzi nau, triste nago. Emazteak esaten dit ea zergatik nagoen horrela, zergatik hartzen dudan besteek baino serioago. Nire ustez, krisi oso handia da herrialdearentzat", dio Tony Trumanek.

Elkarrizketa hasi aurretik esan didazu Europar Batasunan mantentzearekin aldekoa zinela. Zergatik?

Nik beti alderdi liberalari eman diot botoa. Alderdi hau Europar Batasunean mantentzearen alde egon da beti. Askok bezala, nik ere izan ditut Batasunaren inguruko zalantzak, baina gertatzen ari dena ez zaigu batere gustatzen. Nik Brexitaren aurka eman dut botoa eta izandako emaitzak asko harritu nau.

> "Askoren ustetan, arazoa inmigrazioa da; kontrolik gabe dagoela uste dute"

Londresen egon zinen bozketaren aurretik. Hiri kosmopolita da eta agian ez du balio Erresuman pentsatzen denaren barometro izateko. Baina, hala ere, zer giro sumatu zenuen?

Londresek Europar Batasunean mantentzearen aldeko botoa eman du. Londres berezia da: jende nahasketa handia dago eta kanpora begira ikuspegi zabalagoa du. Hemen gertatu dena, gehienbat, Alderdi Kontserbadoreak eta UKIP alderdiek sortutako nahaspila handia izan da. Erresuma Batua ekonomikoki ongi doa eta langabezia maila txikia du, baina, askoren ustetan, arazoa immigrazioa da; kontrolik gabe dagoela uste dute. Erresuma Batua beti izan da gizarte irekia. Gudetatik eta intolerantzia politikotik ihesi zetozen immigranteei ongi etorria eman zaie: etiopiarrak, Sudanekoak, Irak eta Iranekoak, etab. Aurretik, naziengandik ihesi zetozen judutarrak ere hartu ditugu, baita Errusiatik ihes egindakoak ere. Azken urteotan Europar Batasuneko herrialdeetatik etorritako jende ugari ere etorri da. Lanera edo ikastera datorren jendea da. Adibidez, milioi bat poloniar bizi da gaur egun Erresuma Batuan. Londresen alkate musulman bat aukeratu berri da. Horrek erakusten du hiri tolerantea dela. Baina Siriako errefuxiatuen krisia piztu zenean, Angela Merkelek Alemanian milioi bat errefuxiatu hartuko zituela iragarri zuenean, David Cameron lehen ministro ohiak beldurrak astindu zituen. Esan zuen behin paperak lortzen zituztenean, Erresuma Batura helduko zirela. Herri tolerantea gara, baina 1973an Europar Batasunean sartu ginenetik, *tory*ek (alderdi kontserbadoreko kideek eta jarraitzaileek) Batasunarekiko intolerantzia erakutsi dute.



Erresuma Batua herrialde irekia dela diozu. Zer gertatu da, orduan, halako erabaki bat hartzeko?

Nigel Faragek (eskuin muturreko UKIP alderdiko buruak) eta bere alderdiak, eta alderdi kontserbadoreko eskuin muturrak, diote immigranteak inbaditzen ari zaizkigula, gaia kontrolik gabe dagoela eta, gero, jende hau guztia gizarte zerbitzuek artatu beharko dutela. Kostu soziala handiegia dela diote. Oinarrian hori da arazoa.

Cameronek erreferenduma deitu zuen bere alderdiko eskuin muturra lasaitzeko. Alderdi barneko kontu batek sekulako arazoak sortu ditu Europan eta, behar bada, mundu mailan. Hori bai dela kontrola galtzea!

Hori da. Gaur goizean BBCn horri buruz ari ziren hitz egiten: zer gertatuko da Frantzian, Danimarkan edota Holandan? Nik Holandan lan egin dut eta badakit islamiarren beldur direla. Kanpainan zehar esan dute Erresuma Batuak 350 mi-

lioi libera ematen dizkiola egunero Europar Batasunari. Hori gezurra da; erdia baino gutxiago ematen du. Arma horiek erabili dituzte jendea beldurtzeko. Gero, Calaiseko (Frantzia ipar-mendebaldeko hiriko) kanpalekuetan gertatzen ari dena daukagu: jende mordoa dago Ingalaterran sartzeko asmoarekin. Gorrotoa, xenofobia eta intolerantzi giroa sortu da eta hori UKIP alderdiak aprobetxatu du bere idearioa zabaltzeko. Alderdi kontserbadoreko eskuin muturrak era burutsuagoa erabili du: esan dute gure herrian ez dugula demokraziarik, europarrek agintzen digutela eta britainiarren aurkako erabakiak hartzen ari direla. Britainia Handia irla bat da eta edadetuak minduta daude. Gogoan dute Gerrak zer kostu izan zuen eta ezin dituzte halako gauzak entzun. Harrokeria da, harrokeria txepela. Jende helduan ikusi da hori; pentsatzen dute ingelesak besteak baino hobeak direla. Gero, badago jende bat pentsatzen duena etorkizuna Commonwealthean dagoela; hau da, uste dute 53 estatu independente (Mozambike eta Erresuma Batua ez beste guztiak Britainiar Inperioaren menpe egondakoak) biltzen dituen elkartean dagoela, Kanada, Australia edo Zeelanda Berriarekin harremanak estututa.

Erresuma Batua 1973an sartu zen Europar Batasunean, baina badirudi beti deseroso sentitu dela. Erabaki batzuk bereak egin ditu, baina beste batzuk ez. Zergatik izan da hori?

Britainiarrek beti pentsatu izan dute Europar Batasuna merkataritzarako sortutako erakunde bat zela, beste ezertarako ez. Askok pentsatzen dute horrela, baita ni bezalako moderatuek ere. Merkataritza aldetik onurak ekartzen zizkigun zerbait bezala ikusten genuen. Baina orain, ikusita Europako hainbat ekonomiak porrot egin dutela, euroak txanpon bezala ez duela funtzionatzen, Europako Banku Zentralak ez duela lana behar bezala egiten, Frantziakoak eta Italiakoak bereziki, baina baita Espainiako, Portugalgo, Irlandako eta Greziako ekonomiak gainbeheran daudela ere, britainiar askok pentsatzen du ea zergatik jarraitu behar dugun kale egin duen klub bateko kide izaten. Halako argudioak erabiltzen dituzte: hobe kanpoan barruan baino. Hala ere, berriro esango dizut, arazo handiena immigrazioaren beldurra izan da. Erresuma Batuak ez zuen inoiz Schengengo Hitzarmena (Europar Batasunaren barneko mugak igarotzeko ituna) sinatu, eta Frantzia eta beste estatu batzuk mugak ixten hasi zirenean, ingelesek gogoratu zuten beraiek esan zutela ez zuela funtzionatuko.

Zer nolako giroa dago gaur egun Erresuma Batuan?

Oso ernegatua, amorraziozkoa. Zatiketa handia ere badago, baita familia eta lagunen artean ere. Mezu oso alderdikoiak bidaltzen dizkidaten lagunak baditut eta ez diet hitz egiten, ez diet erantzuten. Jendea oso gaizki informatuta dago. *Tabloid* bidez (egunkari sentsazionalistak) informatzen dira. Hedabideak ere interes alderdikoien bidez daude kontrolatuta. Horiek kontrolatzen dituztenak (Rupert Murdoch, Barclay anaiak, etab.) oso eskuindarrak dira, botere handia dute. Baina jendeak egunkari horiek irakurtzen ditu...

Ingeles bat Zumaian

"1940ko urtarrilean jaio nintzen Londresen. 1939ko irailean hasi zen Bigarren Mundu Gerra eta Londresen igaro nuen *Blitz*aren garai osoa, Londresen bonbardaketa ikaragarri hura. Ondoren kanpora bidali gintuzten hil ez gintezen. Londresen hezitu naiz, baina nire lana gehienbat nazioartean egin dut. Mundu osoan egin dut lan. Zazpi urtez britainiar siderurgian egin nuen lan. Euskal Herriarekin harreman handia izan genuen, Altos Hornos de Vizcaya eta beste enpresa batzuekin. Euskal Herrian altzairu asko saldu genuen. Horri esker Euskal Herriari buruzko ezagutza jaso nuen. Londreseko Soho auzoan Lekeitioko mutil batekin bizitzen egon nintzen eta harekin etorri nintzen lehen aldiz Euskal Herrira, 1958an, trenez. Lekeitioko festetara eraman ninduen eta harrigarria eta zoragarria iruditu zitzaidan. Francoren garaian eta hura hil ondorengoko urteetan Londresera ikastera joan zen euskaldun jende asko ezagutu nuen. Nire emaztea dena, Miren, ere han ezagutu nuen, Londresen: Espainiako enbaxadaren aurrean protesta ari zen egiten. 42 urte daramatzagu elkarrekin eta alaba bat dugu, Kattalin. Ingalaterran abokatua da eta euskaraz hitz egiten du. Orain bost urte minbizia izan nuen. Sendatu nintzenean alabak esan zigun bizitzeko plan bat behar genuela eta hona etorri ginen bizitzera. Bi urte daramatzagu Zumaian, bizitzaz gozatzen. Ezkontzerakoan Mireni brometan esan nion nirekin ezkondu zela paperak lortzeko Ingalaterran jarraitzeko; aprobetxatu egin zela. Ez dakit orain ez den alderantziz gertatuko!".

Telebista (BBC) eta egunkari (*The Guardian*) onentsuenak daude Erresuma Batuan, baina jendeak nahiago dituzte beste hedabide batzuk.

Azken bost urteetan toryek BBC erasotu eta kritikatu dute. Beraien ustetan, liberalegia eta ezkertiarregia zen, eta hura kontrolatzeko neurriak hartuko dituztela mehatxatu dute. Beste ergunkari batzuk (adibidez, *The Independent* eta *The Guardian*) Europar Batasunean mantentzearen alde agertu dira. Giroari buruz galdetzen zenidan. Ez dut inoiz halakorik ikusi: oinarrizko pentsaera ikusi dut; zuria edo beltza, grisik gabe. Jendeak, orokorrean, ez daki Europar Batasunak nola funtzionatzen duen. Han pentsatzen dute Europar Batasuneko Batzordeko kideak ez direla hautatuak izan. Eta nork esango hori eta britainiarrek! Lorden Ganbera bat dugu, hautatua izan ez dena; gobernuko kide gehienak ez dira hautatuak izan eta, gainera, eliteko gobernu bat da, eskola pribatuetatik eta unibertsitate handietatik ateratako jendeak osatutakoa. Nik uste David Cameron ez dela inoiz Europar Batasunaren alde egon eta sinesten ez dituen argudioak esan behar izan ditu kanpainan zehar. Azken hilabeteotan argudio ulergaitz asko izan ditugu eta hor Nigel Farage-n pisua ikaragarria izan da. Orain oso giro zaila dugu eta hor Jean-Claude Junckerek (Europar Batzordeko presidenteak) eta Wolfgang Schäublek (Alemaniako ogasun ministroak) ez dute asko lagundu: hormaren aurka jarri gaituzte. Ni ere ez naiz Junckerren aldekoa. Luxenburgotik atera da, hau da, paradisu fiskal den estatu batetik. Baina, kontuz, Londres ere paradisu fiskal bat da-eta. Citytik munduko hainbat banku maneiatzen dira: Hong Kongoa, Kaiman uhartekoa, Mantxako kanaleko uharteetakoa, Gibraltargoa... Ziur aski, mundu mailan ezkutatuta dagoen diruaren % 35 Londresetik pasatzen da.

> ‘‘Nik uste jendea oso beldurtuta dagoela; askok ez dakite zer bozkatu duten ere eta orain diote gaizki bozkatu dutela’’

Hiru izen aipatuko dizkizut. Ea zer pentsatzen duzun. David Cameron, Boris Johnson eta Nigel Farage.

Cameron eliteko pertsona bat da eta ez du kaleko jendea ulertzen. Boris Johnson (Londreseko alkate ohia eta Brexitaren buruetako bat) oportunista hutsa da, lotsagabea, anbizio handikoa, gezurtia. *The Daily Telegraph* egunkariaren korrespontsala izan zen Bruselan eta kanporatu egin zuten informazio faltsua helarazteagatik. Baina jendeari gustatzen zaion pertsona bat da eta nik ez dut hori ulertzen: populista eta zorigaiztoko pertsona bat. Farage faxista hutsa da. Beti aritu da eliteko jendearen aurka hizketan, baina bera horren parte da. Gezurretan oinarritu da bere karrera egiteko.

Brexita ez aplikatzeko aukerarik ba al dago? Bigarren erreferendum bat egiteko eskaera milioika lagunek sinatu dute.

Parlamentuak gobernuaren erabakiak betatu ditzakeela uste dut. Oso egoera larrian gaude; burtsek behea jo dute, libera esterlina ere asko jaitsi da... Hori aurreikusten zen, ekonomista guztiek ohartarazi zuten. Nik uste jendea oso beldurtuta dagoela; askok ez dakite zer botatu duten ere eta orain diote gaizki bozkatu zutela. Larrialdi egoera batean gaude. Orain beste arazo handi bat sortu da: Eskozia badoa eta Irlandako Errepublika eta Ipar Irlanda batzeaz hitz egiten ari dira. Horrek Erresuma Batuaren amaiera ekarriko luke. Egoera ikusita, diruak alde egingo du edo ez da etorriko. Eskuin muturreko toryei ez zaie asko axola: merkatu librean sinesten dute, ez ongizate estatuan. Jende horrek pentsatzen du hobeto egongo direla Amerikako Estatu Batuekin Europarekin baino.

Eskozia aipatzen zenuen. Engainatuta sentitzen dira.

Ez dira, ba, egongo! Begira zer gertatu zen Eskoziako erreferendumean. Esan zieten taldean jarraitzen bazuten, etorkizuna izango zutela, baina justu kontrakoa gertatu da orain. Eskoziako abertzaleei arrazoia eman diete. Azken inkesten arabera, berdinketa zegoen independentisten eta Erresuma Batuan mantentzearen aldekoen artean. Orain beste inkesta bat egingo balute, % 65 independentziaren alde aterako litzateke, Eskoziaren etorkizuna Europar Batasunaren barruan ikusten dutelako.

Eta orain zer?

Ziurgabetasun egoera batean gaude, trantsizio garai oso arriskutsu batean. Ikusiko dugu zer gertatzen den, ez dakigu-eta ezer. Zalantza handia dago Erresuma Batuan, baina baita kanpoan bizi garenon artean ere. Eta zer esanik ez Erresuma Batuan bizi diren europarren artean. Boris Johnsonek dio ez diela eragingo, baina nola ez die eragingo! Ikusiko dugu zer dioten gazteek, egoera honek zuzenean eragingo die-eta. ■

Casa BASUSTA
LORATEGIA

Ezkontzak, bataioak, jaunartzeak,
lore-zentroak, koroak,
landare naturalak eta artifizialak,
zeramika-lanak eta zumezko saskiak.

Etxez etxeko zerbitzua!

Santiago auzoa, 18
Tel. 943 862 611

GLENCOE
INGELES AKADEMIA

TALDE MURRIZTUAK

· Cambridgeko titulazio ofizialetarako prestakuntza (Ket, Pet, First, Advance).
· Eskola laguntza (DBH, Batxilergoa...).

Aurrematrikulazioa irekita
2016-2017 ikasturterako

matrikulazioa dohainik!

Kurtso hasiera irailak 5

ZUMAIA
Zunbilo kalea, 12 behea · T. 670 391 777

PUBLIZITATEA

BEDUA ITURGINTZA S.L
ANTONIO AZPILLAGA

-KALEFAKZIOA
-ZORU BERO-EMAILEA
-GAS INSTALAZIOA
-GAS NATURALA
-BAINUGELAK ETA SUKALDEAK

Jose Mari Korta Industrigunea, 9
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa
tel. 943 143 369

EGOKI

Erloju
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6
tel. 943 861 787

BEHEKO PLAZA
taberna-jatetxea
- Eguneko menua
- Karta
- Pizzak
- Taldeentzako menu bereziak
BERRITUA
Eusebio Gurrutxaga plaza
Tel. 943861700

Egin zaitez
BALEIKEko
bazkide

ekin elektrizitatea, sl
Erribera kalea, 6 20750 Zumaia tel. 943 143 097
ekinsl@ekinsl.com www.ekinsl.com
Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet
BEEP
DIGITAL+

V. Arrate, 3 Tel. 943 860 045

ERTZ INFORMATIKA

Portatilen mugikorren
eta tableten konponketak
Beheko plaza tel./faxa: 943 143 395

Rosi Garbiketak
Etxeak eta dendak
Enpresa eta auzo lanak
Arropa garbiketa eta tindaketa
Basadi, 3-A tel. 943 016 353

FLYSCH UZKUDUN
taberna

Eusebio Gurrutxaga plaza, 10 - 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel: 943 11 63 97

Galdona
burdindegia
Mendaro mantela, 1 tel.: 943 861 117 - 943 143 346
Juan Belmonte, 15 faxa 943 861 330

Ganbara
TABERNA
Juan Belmonte, 5 tel. 943 861 057

Garoa
kafetegia
Txomin Agirre kaia Tel. 943862181

GLENCOE
INGELES AKADEMIA
TALDE MURRIZTUAK
Zunbilo kalea, 12 behea
tel. 670 391 777
matrikulazioa dohainik!

Trapaia
Taberna
Erribera kalea
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
tel. 943 861 973

yoana
ileapaindegia
Amaia plaza,
2 behea
943 143 278

Ikastegi homologatua
Golden Gate
institute
hizkuntz eskola
Erribera kalea 1 bis, behea
tel./faxa 943 865 020
info@goldengateinstitute.com

Alex **URANGA**

Garaipen handia lortu du Alex Urangak Itacoatiaran (Brasil), Munduko Bodyboard Zirkuituko maila goreneko proban. Bost urte daramatza munduko onenekin lehiatzen, eta emaitza honek hauspoa emango dio olatuaren aparrean jarraitzeko.

"Bultzada hau behar nuen **aurrera** segitzeko"

TESTUA: GORKA ZABALETA
ARGAZKIAK: GABRIEL HEUSI / HEUSI ACTION ETA TONY D'ANDREA

Brasilera joan aurretik bidegurutze baten aurrean ikusten zuen bere burua Alex Urangak. Azken urtea zaila izan da, belauneko lesioak iazko denboraldia zapuztu zion eta aurten Munduko Zirkuituan lehiatu zen lehen proban –Tahitin– ez zuen esperotako emaitzarik lortu. "Bosgarren urtea da maila gorenean, eta betiko grinari eusteko zerbait berezia behar dut, emaitza on bat, aurrera egiten lagunduko didana", aitortu zuen abioia hartu baino egun batzuk lehenago. Aurrerantzean, bere indar guztiak zirkuituan jarri edo beste bide batzuk bilatu, *izan edo ez izan*, zalantza piztu zitzaion Alexi.

2011n sekulako balentria lortu zuen Reunion Irlan; Hollywoodeko pelikula bateko istorio harrigarri horietako bat izan zitekeen: Munduko Zirkuituan erabat ezezagun, aurre kanporaketetatik hasi, buruz buruko denak gainditu, finalera iritsi eta irabazi, tartean haitzaren eta koralaren kontra sekulako kolpea hartuta –besaburua minduta eta aurpegia zaurituta bukatu zuen–. Heroi ezezagunak han irabazi zuen Costes, Hubbard, Lavernhe, Player, Winchester eta enparauekin lehiatzeko eskubidea. Ametsa zen hura Alexentzat, eta amets horri eutsi dio bost denboraldi hauetan. Munduko bosgarren ere izan zen 2014ko sailkapen nagusian eta goranzko bidean zihoan, iaz belauneko lesioa agertu zen arte. Eta lesioarekin batera, aipatutako zalantzak.

Baina Brasilek mamu guztiak uxatu ditu. Belauna erabat osatuta dauka eta bere buruari erakutsi dio onenekin lehiatzeaz gain, irabazteko gai ere badela. "Bultzada hau behar nuen aurrera segitzeko", aitortu du. Brasilgo garaipena ez baita nolanahikoa izan. Lehen kanporaketatik finaleraino, jaun eta jabe izan zen buruz buruko guztietan, tartean hiru munduko txapeldun kanporatuta: Amaury Lavernhe, Jeff Hubbard eta Pierre Louis Costes. Itacoatiarako hondartzan bildutako jarraitzaileek ez zuten zalantzarik, Alexek merezi zuen garaipena; eta adierazgarriena, iritzi berekoak ziren bere aurkari zuzenak.

Brasildik zuzenean Txilera bidaiatu zuen Alexek, Aricako proban parte hartzera. Tarte hartan izan genuen berekin hitz egiteko aukera, Arican lehiatu aurretik, Itacoatiarako garaipenaren oihartzunak oraindik fresko.

Alex, Brasilen lortu duzu hainbeste behar zenuen garaipena. Zure planak aldarazi al ditu?

Momentu honetan ez daukat batere garbi nire planak nondik nora doazen, egia esan. Egia da Brasilera joan aurretik hitz egin genuenean gauzak ez zeudela batere garbi. Baina surfean oso fuerte ikusten nuen neure burua, bakarrik emaitza on bat behar nuen, bultzada bat aurrera segitzeko. Ni joango naiz proba guztietara onena ematera eta ea noraino iristeko gauza naizen.

> ''Momentu honetan ez daukat batere garbi nire planak nondik nora doazen''

Brasilen laugarren urtez izan zara. Nolakoa da Itacoatiarako olatua?

Hondartza tropikal horietako bat da, hondar zuria, palmerak atzealdean eta mendiz inguratuta. Hondartza gehienetan bezala, olatua oso aldakorra da. Erreboteak sortzen dira eta erne egon behar da uneoro, olatua hartzeko leku egokiena aldatu egiten baita. Baldintzak nork berak aztertu behar ditu uretara sartu aurretik, eta behin barruan bizi ibili behar da [olatua hartzeko] lehentasuna gordetzeko. Marea jaisten bada, atzerago lehertzen du; marea igotzean, ezkerra da hobea. Oso garrantzitsua da erne egotea eta itsasoaren egoera aztertzean asmatzea.

Brasilen, gainera, lagunak izan dituzu alboan. Beraien babesa ere garrantzitsua izango da, ezta?

Ando [Andoni Izaga] eta Txelo [Ander Odriozola] izan dira nirekin, eta Unai Borda ere bai dena grabatzen. Horien laguntza izugarria izan da, eta talde lanaren emaitza igarri dut. Beti oso erne egon dira eta aholku oso onak eman dizkidate. Andoni eta Txeloren begirada eta informazioa oso lagungarriak izan dira, eta kanpoko animoak ere bai. Andonik hasieran txapelketan parte hartu izanak ere pilak lehen unetik kargatzen lagundu zigun.

Eta Maika etxekoak ere aipatu zenituen podiumetik. Zein dira Maika etxekoak?

Itacoatiaran bertan, beraien etxean hartu gaituen gazte koadrila bat da, gure adinekoak eta gure antzekoak. Oso giro onean egon gara haien etxean, babes handia eman digute, eta leku batean eroso sentitzea oso lagungarria da uretan zure onena emateko.

Txapelketan zehar lehen unetik oso sendo aritu zara, nabarmendu egin zara.

Kanporaketa guztiak oso ondo landu ditut, bai. Urdurien hirugarren errondan jarri nintzen, Chiara argentinarraren aurka. Olatuaren tamaina asko jaitsi zen eta baldintza horietan edozer gerta daiteke, oso zaila baita aldea egitea. Gero final zortzirenetan Eder Luciano brasildarra izan nuen aurkari. Lehen hamar minutuetan erabakita utzi nuen kanporaketa, bi olatu on hartuta –9.25 eta 9.5–. Oso suelto hasi nintzen, ikusi nuelako olatuak berriro nire gustukoak zirela, indartsuak eta malda politarekin.

Eta azken hirurak munduko txapeldunak: Laverhne, Hubbard eta Costes…

Amauryren kontrakoa oso lehiatua izan zen, fisikoki zein teknikoki. Lehen minututik, gainera. Olatu berbera hartu genuen, nik eskuinera eta berak ezkerrera; eta olatua amaitu bezain pronto, biok ahalik eta azkarren egin genuen arraun

hurrengo olaturako lehentasuna lortzeko. Borroka hori hiru aldiz izan genuen, eta desgaste fisiko handia izan genuen. Azken olatu on bati esker, neuk irabazi nuen.

Jeff Hubbard finalaurrekoan: bera da munduko txapelduna eta sailkapeneko burua. Hari irabazteko sekulako maila behar da.

Bai, Jeff Hubbard dago gaur egun puntaren puntan. Oso garrantzitsua izan zen lasaitasunari eustea eta indarrak gordetzea, lekua mantentzea alde batera eta bestera ibili gabe; eta lehentasuna zaintzea beti, argi jokatu eta indarrak olatu onenerako gordetzea. Hori izan zen nire estrategia eta halaxe iritsi nintzen finalera.

Eta finalean, Pierre-Louis Costes frantziarra. Askotan lehiatu zarete elkarren kontra eta gehienetan hark irabazi izan dizu. Horrek kezkarik eragin al zizun?

Haren kontra final batean lehiatu eta irabazteko gogo berezia nuen, ez dut ukatuko. Costesi final batean irabaztea oso zaila da. Edozein olatutara egokitzen da eta psikologikoki osa zaila izaten da hura urduri jartzea. Normalean bere sarean harrapatzen zaitu. Baina nik neureari eutsi nion, estrategia berberarekin jokatu nuen finala: lasai egon, lekua gorde, lehentasuna zaindu eta olatu onenen zain egon.

Eta olatua iritsi zen…

Bai, Costes jarri zen aurretik baina ni ez nintzen urduri jarri. Txapelketa osoan sentsazio berbera izan nuen, neuk dominatzen nituela aurkariak. Beste askotan kontrakoa gertatu izan zait, baina Brasilen sentsazio hori izan nuen. Txapela emango zidan olatuaren zain egon nintzen, eta olatua etorri zen. Altuera handia hartu nuen, hegan sentitu nuen neure burua, *backflip*a egin eta uretara ondo erori nintzenean banekien oso olatu ona zela.

"Aurkariek ere aitortu zuten Alexek **merezi zuela** garaipena"

Alexen garaipena bertatik bertara bizitzeko aukera izan dute Andoni Izagak eta Ander Odriozolak. Itacoatiaran lagunarekin bizitako egunak ez dituzte berehala ahaztuko.

"Rio de Janeiroko badiaren bestaldean dago Itacoatiara, Niteroi hirian. Riotik iristeko, 14 kilometroko zubi batetik igaro behar da", hasi zaizkigu esplikatzen. Niteroin 500.000 lagun bizi dira, baina Itacoatiara aparte, ezkutu samar, dagoen hondartza bat omen da. "Mendiz inguratuta dago, eta han txalet moduko etxe batzuk baino ez daude, udatiarrenak". Pare bat txiringito, sushia saltzen duen txinatar bat eta zuku denda bat; askoz gehiago ez omen dago; "Lehen janari denda hiru kilometrora dago". Leku lasaia, itsasoaz gozatzeko aproposa.

Itacoatiaran bizitako egun gogoangarriak, baina, ez ziren ondoegi hasi: "Etxe bat alokatu genuen Internet bidez, laurontzat [Alex Uranga, Unai Borda, Andoni Izaga eta Ander Odriozola]. Hara iritsi ginenean ez zeukan zerikusirik webguneko argazkiekin. Garaje moduko bat zen, lurrean lau egur jarrita… Bizikletak ere agindu zizkigun hondartzara joateko, baina bizikletarik ez zegoen han… Ezin ginen han gelditu, baina ordainduta geneukan eta hasieran ez zigun dirua bueltatu nahi… Azkenean ia dena berreskuratu genuen".

Zorionez, hondartzan bertan ezagutu zuten gazte koadrila batek eman zien soluzioa. "Hondartza ondoan dagoen etxe handi batera eraman gintuzten, Maika etxera. Duela urtebete arte abandonatuta zegoen eta gazte talde batek hartu zuen, festak antolatzeko. Duela zazpi hilabete etxebizitza modura hartu zuten, eta ari dira pixkanaka etxea konpontzen, festetan ateratzen duten diruarekin". Etxea txukun jarri dutenean, gelak alokatzen hasi dira, eta hantxe hartu zuen ostatu laukoteak. "Etxe hura eta bertako jendea oso garrantzitsuak izan dira, giltzarri, dena ondo ateratzeko", diote Andonik eta Anderrek, konbentzimendu osoz.

Andoni Izagak txapelketako trialsetan (aurre kanporaketa irekiak) hartu zuen parte, eta bi kanporaketa gainditzea lortu zuen. "Lehenengoan perutar bat eta txiletar bat izan nituen aurkari, eta bigarrenean bi txiletar. Hiru-

garrenean, aurrera egiteko 4.9ko olatua behar nuen eta 4.85 eman zidaten… Brasildarra zen aurkaria, Joao Zik. Hurrengo erronda txapelketako lehena zen, Alexek jokatu zuen lehena". Zik finalaurrekoetaraino iritsi zen gero, eta Costesen aurka galdu zuen finalerako aukera.

Ez da Andoni eta Ander Alexekin bidaiatzen duten lehen aldia. Ander, esate baterako, Alexekin izan zen iaz Arican (Txile), Frontonen (Kanariar Uharteak) ere izan da, baita Sintran (Portugal) ere behin baino gehiagotan. Brasilen sekula baino lasaiago ikusi dute: "Sekula baino helduago. Urte batzuk badaramatza zirkuituan eta presiorik gabe ibili da". Ez dute ezkutatzen Alexek une txarrak pasa dituela iazko lesioaren ondoren: "Pixka bat etsita zegoen, dena utzi eta hurrengo urtean lanean hasiko zela ere esaten zuen. Laguntzak ere oso gutxi dauzka…".

Presiorik gabe joateak mesede egin diola uste dute biek: "Alex oso erradikala da surfeatzen, arriskatu egiten du. Brasilen olatu onenaren bila joan da, ausart. Txapelketa hondartzatik bertatik jarraitu duten guztiek onartu diote hori". Estuasun handienak olatuen tamaina jaitsi zenean izan omen zituen, argentinarrarekin. Luciano brasildarrarekin ere kezka hori zuen, hura espezialista delako olatu txikietan. Baina itsasoak gora egin zuen eta erraz gainditu zuen kanporaketa. "Bi olatu hartu zituen bederatzitik gorakoak, eta horrek sekulako indarra eman zion. Han ikusi zuen txapelketa eskuin olatuan zegoela, nahiz eta finala, kasualitatez esker handi batekin erabaki".

Finalean Pierre-Louis Costesekin egin zuen topo. "Egia esan, gure inguruan zegoen jende guztiak nahi zuen Alexek irabaztea. Hainbeste aldiz irabazi dio frantziarrak Europako Txapelketan eta beste hainbat probatan…". Costesen aurrean urduri jartzeko arriskua zegoen, baina ez zen gertatu. "Oso garbi zeukan olatu handiaren bila joango zela, olatu onena nahi zuela, eta zain egoteko pazientzia izan zuen". Costes, ordea, ohi baino nahasiago ikusi zuten finalean. "Olatu onak hartu zituen, baina maniobrei ez zien segida ematen besteetan bezala. Ez zegoen lasai, bazekielako Alexek puntuazio oso altuak lortu zituela aurreko kanporaketetan".

Eta azkenean iritsi zen Alexek nahi zuen olatua. "Ezker olatu handi hura hartu zuenean, eromena lehertu zen hondartzan. Guk hamarreko puntuazioa eskatu genuen! Hari buelta emateko sekulakoa behar zuen Costesek". Hala ere, ez zuten bakerik izan amaierako bozinak jo zuen arte. "Costes kapaz da azken minutuan dena hankaz gora jartzeko".

Baina ez zen halakorik gertatu eta, finala bukatu orduko, festa hasi zen hondartzan. "Han geunden Unai [Borda], gu biok, kanariarrak eta Maika etxeko lagunak, elkarren gainean, saltoka eta ikurrinarekin". Alex sorbalda gainean hartuta atera zuten Andonik eta Anderrek. "Amaury [Lavernhe] bera ere han zebilen, pozik Alexen garaipenarekin. Aurkariek ere ikusi dute Alexek urte asko daramatzala lehian, baduela irabazteko maila eta azken urteotan ez duela zorterik izan. Aurkariek ere onartu zuten Alexek merezi zuela garaipena. Profesionalen onarpen osoa dauka, denek zoriondu zuten".

Baina Costesekin ez dago sekula jakiterik, gai da azken unean finalari buelta emateko…

Bai, arrisku hori beti dago. Lehentasuna zeuk izan arren, kapaz da olatua beherago hartu eta errematatzeko. Azken minutuak luze samarrak egin zitzaizkidan, baina bukatu zenean emozio handia sentitu nuen. Nire gogo bakarra izan zen kanpoan zeuden lagunekin ospatzea. Eta ia-ia uretatik ateratzen ari nintzela hasi nintzen hurrengo txapelketan pentsatzen.

Izan ere, apenas izan zuten garaipena ospatzeko aukerarik. Txapelketa amaitu eta goizaldean Itacoatiaratik Txilera joateko hegaldia zuten zain. Aricako olatuan jokatu zen, ia jarraian, Munduko Zirkuituko laugarren proba. Itacoatiara bezala, Arica ere goi mailakoa da, sailkapen nagusirako puntu gehien ematen duenetako bat.

Aricako olatua beti izan da Alex Urangaren gustukoena. Haitz gainean lehertzen den olatu oso bortitza da, zirkuituko ikusgarrienetako bat. Baina baita arriskutsuena ere, askotan metro erdiko ur geruza baino ez dagoelako kirolaria eta haitzaren artean. Ausartentzako olatua da, eta baldintza horietan nabarmentzen da Alex.

Aurrekari horiekin eta Brasildik zekarren sasoiarekin, bazeuzkan itxaropentsu izateko arrazoiak. Eta ondo ekin zion txapelketari, maniobra ederrak eginez. Baina inoiz ez dago jakiterik bidea noiz okertuko den, eta Arican final zortzirenetan bukatu zen Alexen lana. Dave Hubbardek aurrea hartu zion kanporaketa hasi orduko eta, buelta emateko gai izan zen arren, minutu baten faltan eguneko olaturik onena hartu zuen hawaiiarrak, eta akabo Arica.

Hego Ameriketan jokatutako bi proben balantzea, baina, ezin hobea da. Garaipena eta sailkapenerako puntu piloa lortzeaz gain, Alex Urangarik onena itzuli da zirkuitura. Ametsak bizirik dirau. ■

PUBLIZITATEA

Gure-Txokoa
taberna
Upela plaza, 4
20750 Zumaia
Tel.: 943 86 09 70

Harvest
English School
...eta udaran Ingalaterrara ingelesa praktikatzera
www.academiaharvest.com
San Jose, 11 bis tel. 943 143 334

Azkue
www.ricardoazkue.com
Txomin Agirre 4, behea tel. 615 793 406 / 943 862 651
elena@ricardoazkue.com fax: 943 862 748

ilargi
Alai auzategia, 2
Tel. 943 24 50 20

INPERNUPE ELKARTEA
Erribera kalea 16. Tel. 943 861 523

Iriondo optika
Kantauri plaza, 8. Zumaia. tel.: 943 86 04 86
Nagusia, 53. Azkoitia. tel.: 943 85 19 84

IRUITZ
Ileapaindegi Mistoa
San Telmo, 12 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 860 760

TXALAPARTA
OPARIAK
Angeles Serara, 2
20750 ZUMAIA
(Gipuzkoa)
tel. 943 143 089
faxa. 943 430 637

talaia
taberna • jatetxea
Santiago auzoa, 4 Tel. 943 143 370

ZETA
943 862 083
ORRAZTEGI ZUMAIA

JUARISTI
jatetxea
Arrainak eta haragiak aukeran
Eguneko menua
Jangela klimatizatua
Basada auzategia, 10 tel. 943 05 05 77

JUSTA
taberna
Erribera kalea, 20 www.justataberna.com
tel. 943 861 405 justa@justataberna.com

KABI'
TABERNA
Patxita Etxezarreta, 15
943 117 427

Kaithermik S.L.
Arotzeria metalikoa
Aluminiozko leihoak ZTHrekin,
PVCzkoak eta mistoak
Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943860320

kalari
Upela plaza, 8
tel. 943 862 517

PAPER diseina grafikoa
Roberto Gutierrez
606 211 111 • rgutierrez@rgutierrez.org • www.rgutierrez.org

Kresala
Taberna
Julio beobide 3, tel. 943 019 869

“Erreleboa emateko ordua iritsi da”

Aro berri baten hasieran dago Pulpo eskubaloi taldea, zuzendaritza taldea berrituta. Agur esan baino lehen, atzera begira jarri ditugu ardura utzi berri duten Bego Izaga, Iñaki Sorazu eta Juanma Chinchilla. Gazitik eta gozotik, denetarik izan dute, baina, oro har, konforme doaz egindako lanarekin.

TESTUA: GORKA ZABALETA
ARGAZKIAK: ARNAITZ RUBIO APREA

"Ni Pulpora iritsi nintzen Gaizka semearengatik, duela 20 bat urte. Kadete mailan hasi zen eta laguntzera etorri nintzen. Orduan Abel Yeregi zen presidente, eta zuzendaritzan zeuden Jesus Ostolaza, Miguel Zubimendi eta Juanma Chinchilla", hasi da esplikatzen Bego Izaga. Aldamenean eserita dauzka Iñaki Sorazu eta Juanma Chinchilla bera; Pablo Gutierrezekin batera, laurek izan dute Pulporen gidaritza azken 15-20 urteotan. "Baina niretzat lan handiena 1999an hasi zen, Lehen Mailara igo ginenean, hori salto handia izan zen klubarentzat. 25.000 euroko aurrekontua zuen Lehen Mailako taldeak, eta babesleak behar ziren, bidaiak antolatu…". Orduan sartu zen Bego Izaga buru-belarri klubaren kudeaketan eta, gauzak nola diren, taldeak Lehen Mailan 16 denboraldi egin ondoren, jaitsierarekin batera bukatu dira bere ardurak ere.

Juanma Chinchillak eta Iñaki Sorazuk denbora gehiago egin dute klubean; bizitza osoa esan daiteke; "Jose Manuel Aizpurua presidente zela sartu nintzen ni zuzendaritzan", gogoratu du Chinchillak; 1980ko hamarkadaz ari da hitz egiten… Iñaki Sorazuren bizitzan ere oso inportantea izan da Pulpo: "Pentsa, bederatzi urte neuzkan sartu nintzenean, jokatzera, eta 44 urte dauzkat orain". Presidente karguan 15 bat urte izango ditu eginak, Abel Yeregiri erreleboa hartuta; "Dena den, hemen beti gutxienekoa izan da nor den presidentea, hemen talde lana egin da beti", zehaztu nahi izan du.

Baina beraientzat bukatu dira ardurak, ekainaren 15etik beste talde bat ari baita lanean. "Erreleboa emateko ordua iritsi da; ziklo bat bukatu da eta orain jende berriak har dezala ardura", azaldu du Sorazuk. Zuzendaritza uzteko erabakiaz galdetuta, urtebete atzera egin behar dela diote.

> ''Jendeak esango du kirol mailan hondoa jo dela, baina hori ez da hain larria; garrantzitsuena da oinarrian badagoela gaia''

Espainiako Txapelketako azken faserako sailkatu ziren jubenilak, eta Pulpok hartu zuen final haiek antolatzeko ardura. Oso egun gutxiko tartearekin, txapelketa arrakastaz antolatu zen. Kanpora begira, jarraitzaileen, jokalarien, beste klubetako arduradunen eta federazioetako kideen begietatik, sekulakoa izan zen. Baina klubaren barruan zauri bat edo beste eragin zuen, eta ondorio guztiak ez dira onerako izan. "Txapelketa egin eta gero, erabaki genuen ardura uzteko garaia iritsi zela. Baina ez genuen alde egin nahi denboraldi berriaren atarian eta erreleborik utzi gabe", dio Sorazuk; "Denboraldi hasieran jakinarazi genuen gure azken denboraldia izango zela eta urte osoa zegoela talde berri bat osatu eta aldaketa ondo egiteko".

Zorionez, denboraldia amaitzerako talde berri bat agertu da klubaren ardura hartzeko prest eta dagoeneko haien esku dago. Josemi Antiak hartu du presidente ardura, Xabier Letamendia izango da kirol zuzendaria, eta zuzendaritza hauek osatu dute: Santi Aizpurua, Andres Torriko, Juanjo Unanue, Arri Serrano, Maribel Hornero, Ruben Odriozola, Iraitz Mujika eta Montse Atxega. Behin martxa hartuta, bazkide batzarra egingo dute zuzendaritza talde berria bozkaz aukeratzeko.

Egindakoarekin pozik

Atzera begira jarrita, Izaga, Sorazu eta Chinchilla oso pozik daude egin duten lanarekin. Kirol arloan, esate baterako, asko hazi da kluba. Aurten 19 talde izan ditu Pulpok, inoiz baino gehiago. "Lehen askoz gutxiago ziren; egia da, lau talde izan edo 19, klubaren egitura berbera dela, eta esango nuke orain jende gutxiago dagoela lanerako", dio Sorazuk. Horre-

gatik, askotan pertsona berberak hamaika lan egin behar izan ditu; "Entrenatzaile batek talde bat baino gehiago zuzendu, adibidez; edo geu asteburuetan ere etortzen gara partidak arbitratzera edo mahaian egotera, jendea falta delako", jarraitu du Chinchillak; "Horregatik, nik uste dut askotan jendeak ez dakiela zenbat lan eta zenbat ordu eskaini dizkiogun klubari; klubeko kide asko ere ez da jabetzen", osatu du Izagak. "Bego egunero-egunero etortzen zen arratsaldero bulegora, bostetatik bukatu arte; lanaldi erdi bat da hori!" , bukatu du Sorazuk.

Hirurek defenditzen dute hori izan dela Pulporen betiko egiteko modua. "Beti funtzionatu dugu zuzendaritza talde txiki batekin; gu oso ondo moldatu gara gure artean, eta hori oso inportantea da", azaldu du Sorazuk. Eta 19 talde gehiegi ez ote diren galdetuta, Chinchillak ez du zalantzarik: "Pulporen filosofia beti izan da datorren guztiari ematea jokatzeko aukera, guk ez dizkiogu ateak itxi inori. Baina orain arazo bat daukagu: entrenatzeko lekua falta dugu".".

Izan ere, kiroldegiko kantxak ez du gehiagorako ematen. "Penagarria da taldeek ezin kantxa osoan entrenatzea, ez gara kabitzen", dio Sorazuk. "Jendeak esango du kirol mailan aurten hondoa jo dela, Lehen Mailako taldea jaitsi egin dela, Euskal Ligatik jaitsi direla mutilak… Baina hori ez da hain larria; garrantzitsuena da oinarrian badagoela gaia. Neskak, adibidez, oso indartsu datoz eta ezin da ahaztu 300dik gora fitxa dauzkagula [Zumaian kirolari gehien daukan kluba]. Ziklo berri bati ekiteko oinarriak jarrita daude", defendatu du Txintxillak.

Diru kontuen inguruan izan diren zurrumurruek egin diete min gehien, baina ez dute nahi zaurian gehiegi sakondu. "Garbi esan nahi dugu talde berriak ez duela inolako arazorik izango alde horretatik, klubaren diru kontuak osasuntsu daudelako", esplikatu du Iñaki Sorazuk; "Ez daukagu zorrik eta diru poltsa bat egin da, kostata". Bego Izagak gogoratu du egoera oso bestelakoa zela bera iritsi zenean: "Orduan zailtasun handiak zeuzkan klubak, likidezia arazo larriak; baina aurre egin zitzaion nola edo hala, jendearen eskuzabaltasunari esker, eta orain ekonomikoki ondo dago kluba".

Svenssonen txibiak

Lehen Mailan 16 denboraldi egin izana sekulako marka da kirol ikuspegitik. Igo berritan, lehen denboraldian hirugarren gelditzea ere azpimarratzekoa da. Eta azken urteotan Kauldi Odriozolak, Ander Torrikok eta enparauek osatutako belaunaldiak lortutakoak betirako gogoratuko dira, baina azken horiekin badute arantzatxo bat. Klubaren ideia zen nagusiak Lehen Mailan mantentzea, belaunaldi zoragarri horrek bere distira guztia han erakusteko aukera izan zezan. Baina jokalari onenek aukeratutako bidea beste bat izan da, eta hala onartzen dute.

"Ni Pulpon emakume zoriontsua izan naiz", dio Bego Izagak emozioa ezkutatu ezinik. Klubetako eta federazioetako zuzendaritzak oraindik gizonen mundu bat den arren, ez omen da sekula gutxietsia sentitu. "Asko gozatu dut gure taldeekin, bidaietan, lorpenekin, antolatu ditugun txapelketekin…". "Asko gozatu, askotan, talde eskasenarekin, ikusita nolako ahalegina egiten duten hobetzeko", gaineratu du Chinchillak.

Baina Zumaian benetan gozatu zuena, Bidasoa eta Portlandeko atezain ohi Tomas Svensson. Urte askoan goi mailako eskubaloi partidak antolatzen zituen Pulpok udan. Hasieran Bidasoa ekartzen zuten Frantziako talderen baten aurka (PSG, adibidez); gero Eibar, Portland eta Ciudad Real ekarri zituzten, eta azken urteetan Bera Bera eta Itxako. "Partida jokatu ondoren Pulpo elkartera eramaten genituen afaltzera", hasi da Bego kontatzen: "Txibiak saltsan jartzen genizkien. Neuk prestatzen nituen pixkanaka; egun batean zortzi kilo egin eta izozkailura; handik bi astera beste zortzi, eta horrela nahikoa osatu arte. Eta behin, Svensson atezain handia etorri zen eta esan ez zigun, ba, berari txibi txikiak gustatzen zaizkiola! Ez zuen gutxi ikasi hark Irun aldean!".

Pulpori eskainitako urte hauetan guztietan jende asko ezagutzeko aukera izan dute. Argazkiz betetako bulegoko hormak ikusi besterik ez dago: Kisselev, Richardson eta beste hainbat izar ageri dira. Baina baita beren bizitzetako uneak ere, Chinchillaren ezkondu aurreko despedidakoak, esate baterako. Izan ere, bizitzaren parte handi bat eskubaloiari eskaini dion familia moduko bat izan dira. Orain, klubeko ardurak utzita, bizimodu berrira egokitu behar. "Nik bizitza guztia daramat eskubaloian eta gogorra egingo zait kluba uztea", aitortu du Iñakik; Chinchillak, berriz, klubean segituko du, entrenatzaile; eta Begok aurkitu du denbora beteko dion lan berria, biloba txikiarekin pozez zoratzen dago eta.

Klubeko zuzendaritzara iritsi berrientzat, animo mezuak besterik ez: "Guk modu batera egin dugu lan, eta talde berriak badirudi beste idea batzuk dituela. Onerako izan daitezela, gure gogo bakarra Pulpok aurrera jarraitzea da et . Animo guztiak beraz, eta badakite laguntzeko prest gaudela. Bestetik, herriko jendea, klubetik pasako dozenaka lagunak, eskubaloizaleak, denak animatu nahi ditugu klubean parte hartzera, laguntza guztia ondo etorriko zaie eta". Eta bukatzeko, esker oharra: "Eskerrak eman nahi dizkiegu, urte guzti hauetan, eta Pulpo sortu zenetik, klubean lan egin duten guztiei, lagundu duten guztiei. Mila esker bihotz bihotzez". ■

PUBLIZITATEA

kuttun
lentzeria
erribera kalea tel. 943117936

maiaur

Egin zaitez BALEIKEko bazkide
BALEIKE
GERRAKO BOST DESAGERTU AURKITU DITUZTE

TXIMISTA
garagardotegia
Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Tzerri-ukondoak (kodilloa)
Saltzitzak, oilaskoak...
Garagardoak aukeran
Ondartza plaza, 4 behea - Tel. 943 573 905

CROISSANTERÍA
pizzak
hanburgesak
bokatak...
marina
Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943 86 22 46

MENDI - ONDO C.B.
Elektrizitatea
Urola plaza, 21 tel. 943 860 074 - 943 861 569

Nikol taberna
amaiako plaza 943861816

NOIA S.L.
TAILERRAK ETA KARROZERIAK
Etengabeko garabi zerbitzua
636 867 812 (Zumaia)
609 834 438 (Itziar-Deba)
Hego kalea, B3 (Estazioan)
20750 - Zumaia
Tel.: 943 861 363
zumaia@carroceriasnoia.com
Itziar industrigunea, C
20820 - Itziar-Deba
Tel.: 943 606 291
noia@carroceriasnoia.com
www.carroceriasnoia.com

MARGARI fruta-denda
Tel. : 943 86 19 20
Harategi Kalea 17 - ZUMAIA

"Muagi"
errehabilitazioa
kirol medikuntza
fisioterapia
RPS: 034/97 Aita Mari, 3. blokea tel. 943 861 691

OSA
BERNIZATUAK
Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa
Parketa jartzea
Estazioko kalea, 12 tel. 943 861 412 - 686 364 149

ETXEGINTZA
OLIDEN
construcciones y reformas, S.L.
647 040 156
686 911 257
oliden@olidenreformas.com
Oliden arkitektura
678 875 652
943 143 093
lur@olidenreformas.com
ZARAUTZ - ZUMAIA
www.olidenreformas.com
Fabxadak
Teilatuak
Etxebizitzak
(Sukaldeak, bainugelak)
Industrien mantenimenduak
Mota guztietako igeltserotza lanak
Etxebizitzen inspekzio teknikoak (ITE)
Zertifikatu energetikoak
Fabxaden diseinua eta ahokulantza
Etxebizitzen barne diseinua
Mota guztietako proiektuak

OSKARBI
KIROLAK
Alai Auzategia, 14 • Arranaitz, 1 Tel. 943 143 112
oskarbikirolak@euskalnet.net

OSTOLAZA
OSTOLAZA ZUMAIA ,S.L.
Joxe Mari Korta Industrigunea, A1 - 4. pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel. 943 86 50 68 • Faxa 943 86 13 45
www.ostolaza.com • e-mail: osto@ostolaza.com

Ostolaza
Altzariak
Julio Beobide Ibiltokia, 1
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
muebiesostolaza@euskalnet.net
Tel./Faxa: 943 86 13 25

La PrimaVera
pizzeria
943 247 011
www.laprimaverapizzeria.com

UKENDU
PARABOTIKA
BELARDENDA
Aitziber Etxeberria Garro
Farmazialaria
Kantauri plaza, 2 943 860 992 www.ukendu.com

“Rioko **Joko Olinpiko** eta **Paralinpiko**etan euskal kirolarien **segimendua** egingo dugu”

Maria Lopezen hiru unibertsoak batzen ditu “Got Rio 2016” proiektuak: ikus-entzunezkoak, kirolak eta bidaiak. Hala, proiektu honen baitan Brasilera bidaiatuko du zumaiarrak, kamera eskuan, Rioko Joko Olinpikoen berri ematera.

TESTUA: MAIALEN ODRIOZOLA
ARGAZKIA: ARNAITZ RUBIO APREA

Maria Lopezen hiru unibertsoak batzen ditu "Got Rio 2016" proiektuak: ikus-entzunezkoak, kirolak eta bidaiak. Hala, proiektu honen baitan Brasilera bidaiatuko du zumaiarrak, kamera eskuan, Rioko Joko Olinpikoen berri ematera.

Ikus-entzunezkoen unibertsoa, batetik. Ibilbide akademikoan zein profesionalen hainbat esparru landu ditu Lopezek (diseinu grafikoa, teknologia berrien arloa…), baina zineman eta errealizazioan espezializatu zenean, aurkitu zuen "benetan betetzen" zuen alorra. Ildo horretatik, proiektu hau bere lanaren erakusleiho bihurtu nahi du zumaiarrak.

Bidaiatzea, bestetik. Brasilgoa ez du izango nazioarteko lehen esperientzia, aurretik Italian, Polonian eta Erresuma Batuan ere aritu baita ikasitakoa praktikan jartzen.

Eta, azkenik, kirolak. Hori erakusteko, berriz, nahikoa da Zumaiako Futbol Taldean eman dituen hamalau urteak aipatzea.

Bada, unibertsoz unibertso, Rion ekoitzi nahi dituen ikus-entzunezkoei buruz, ikusi nahiko lituzkeen kirolen inguruan eta bidaiaz espero duenaz hitz egin dio *Baleike*ri.

Zer da zehazki "GOT Rio 2016"? Zein izango da zuen lana Joko Olinpikoetan?

Rioko Joko Olinpiko eta Paralinpikoetan parte hartzen duten euskal kirolarien segimendua egingo dugu *Gazteaukera* blogean. Elkarrizketak, erreportajeak, argazkiak eta bideoak tartekatuko ditugu bertan. Blogaz gain, Instagrameko eta Youtubeko kanalak ere erabiliko ditugu.

Zortziko blogari taldea izango gara, eta denen artean eguneratuko ditugu "post"-ak. Taldeko lauk Joko Olinpikoen berri emango dugu, eta gainerako laurak Joko Paralinpikoetan egongo dira. Nire kasuan, Joko Olinpikoetara noa, eta abuztuaren 8tik 16ra egongo naiz Rion.

Zer dela eta animatu zinen proiektuan parte hartzera?

Facebooken *Gazteaukera*ren profilaren bitartez izan nuen proiektuaren berri. "GOT Rio 2016" izenak arreta eman zidan eta haren inguruko informazioa irakurtzen hasi nintzen. Dena den, blogariak behar zituztela ikusita, kazetarientzako zela iruditu zitzaidan. Hortaz, koadrilako kazetari bati bidali nion informazioa. Laguna ezin zen aurkeztu, Madrilen dagoelako erroldatuta, baina hark esan zidan bideoekin aurkezteko aukera ere bazegoela, eta horrela hasi zen guztia.

Lehiaketa baten bitartez aukeratu zaituztete "GOT Rio 2016" proiektuko parte hartzaileak. Nolakoa izan da hautaketa prozesua?

"Euskal selekzioak hamar domina eskuratu ditu Joko Olinpikoetan" gaia jarri ziguten antolatzaileek, eta hainbat formatutan egin zitekeen horren inguruko lana: idatzia, ikus-entzunezkoa, argazki galeria… Nire aukera, errealizazio ikasketak egin nituenez, bideo bat aurkeztea izan zen.

Arritxu Iribar kazetaria da bideoaren ardatz nagusia; berak kateatzen ditu zati ezberdinak. Protagonistak, berriz, Naroa Agirre pertika jauzilaria eta Iñaki Osa Goikoetxea puntista dira. Hitz gutxitan esanda, domina batengatik lehiatzera iristeko egin beharreko lan guztia du hizpide Agirrek; Iñaki Osa Goikoetxeak, ordea, lan handia egin arren, eta hainbatetan munduko txapeldun izan bada ere, ez du domina bategatik lehiatzeko aukerarik. Kontraesan hori ere islatu nahi nuen bideoan.

> ''Apustua egin beharko banu, Maialen Chourraut piraguistaren alde egingo nuke''

Bideotik zer gustatu zitzaien gehien epaimahaikideei?

Oso gustukoa izan zutela esan zidaten, asko harritu zituela. Egia esan, pozik nago bideoak izan duen harrerarekin, bidea egiten laguntzen ari zaidala uste dut. Youtuben bisita asko izan ditu, eta baleike.eus-en ere jarri zenuten. Ordutik, jende askok geldiarazten nau kalean nire lana ikusi duela esanez, eta egiten dudana ezagutaraztea oso garrantzitsua da niretzat. Horregatik, sari bikoitza da hau: batetik, saritua izatea errekonozimendu bat izan delako; eta, bestetik, Brasilen beste proiektu bat aurrera eramateko aukera eman didalako.

Nolakoa izango da Rion zuen egunerokoa?

Egunero blogean sarrera bat egin behar dugu, eta bi egunetik behin, bideo bat. Probak ikusteko, berriz, hiruna sarrera edukiko ditugu. Dena den, gure "planning" zehatza zein izango den oraindik ez dakigu; izan ere, zein ekitalditan egongo garen jakitea falta zaigu.

Ba al da bereziki jarraitu nahi duzun kirolik? Edo bereziki ikustea gustatuko litzaizukeen finalik?

Euskal kirolarien segimendua egitera goaz gu, eta beraz, haiek parte hartzen duten ekitaldietan egoten saiatuko gara. Dena den, "GOT Rio 2016" egin den moduan, "GOT London 2012" proiektua ere egin zen aurretik, eta Londresen egon ziren blogariek Usain Bolt ikusteko aukera izan zuten finalaurreko batzuetan. Joko Olinpikoetako kiroletatik ohituago gaude batzuk ikustera, baina Usain Bolt final batean korrika ikustea, hori sekulakoa izango litzateke.

Iñigo Peña zumaiarra Rion egongo da lehiatzen. Badakizu hura ikusteko aukerarik izango duzun?

Ez dugu kointzidituko, gu abuztuaren 16an bueltatzen ga-

Non ikusi ahal izango ditugu Lopezen lanak?

Lopezek eta "GOT Rio 2016" proiektuko gainerako parte hartzaileek Rioko Joko Olinpikoetan euskal kirolarien inguruan egingo dituzten edukiak hemen jarraitu ahal izango dituzue:

- **Bloga: http://www.gazteaukera.euskadi.eus/r58-gotrio/eu/**
- **Instagram: got_rio2016**
- **Youtube: Gazte Aukeraren "GOT Rio 2016" erreprodukzio-zerrenda**
- **Facebook: https://www.facebook.com/Gazteaukera/**
- **Twitter: @gazteaukera - #GOTRio2016**
- **"GOT Rio 2016" proiektuan parte hartzeko lehiaketara bidali zuen bideo saritua: https://m.youtube.com/watch?v=nDe1S-kw704&feature=youtu.be**

BASQUE TEAM

Maria Lopez Ainhoa Murua triatletarekin

relako Euskal Herrira eta Iñigo 19an lehiatzen delako Joko Olinpikoetan. Beraz, pena da, baina ez dut ikusteko aukerarik izango.

Kiniela bat egitera ausartuko al zinateke?

Apustua egin beharko banu, Maialen Chourraut piraguistaren alde egingo nuke. Urrearen bila doa Riora; beraz, aukera asko ditu domina bat eskuratzeko. Aurrekari onak ditu, gainera, duela lau urte brontzezko domina eskuratu zuelako Londresen.

Eta zuk, pertsonalki, zein kirolari ikusi nahiko zenuke dominarekin lepoan?

Hain justu, proiektu honetarako egindako elkarrizketa batean Ainhoa Murua triatleta zarauztarra ezagutu nuen, eta egia esan, asko gustatuko litzaidake hark domina bat eskuratzea. Laugarren aldiz hartuko du Joko Olinpikoetan parte. Orain 37 urte ditu, baina lehenbizikoz parte hartu zuenean 2002. urtea zen eta orduan 28. geratu zen. Gaztea zen oraindik. Atenasen, berriz, 2004ean, 24. geratu zen. Urte horretan, hala ere, atera edo ez zalantzan egon zen, ez zelako ondo sentitzen. Azken Joko Olinpikoetan, berriz, Londresen, urteek emandako esperientziei esker, 7. geratu zen. Ibilbide horrekin merezi duela uste dut. Iñigorekin bezala, honekin ere ez dut kointziduko, ordea.

Horrez gain, zumaiarra izanik, Iñigok berak ere domina bat lortzeak ilusio handia egingo lidake. Polita izango litzateke domina bat ekartzea herrira.

Zer espero duzu maila pertsonalean bidaia honetaz? Eta profesionalean?

Maila pertsonalean ezezagunekin noa; hortaz, nire kideekin harreman ona izan nahi dut eta ahal dudan guztia disfrutatu. Horrez gain, ahalik eta kirolari gehien ezagutzea eta ekitaldi gehien ikustea da gure nahia. Eta behin han gaudela, bada, noski, Rio ezagutzea. Nik uste dut denerako denbora izango dugula, baina behin han gaudela ikusiko dugu ea astirik ematen digun.

Maila profesionalean, berriz, ematen diguten materialarekin ahalik eta bideo duinenak egitea da nire nahia. Jendeak egiten dudana ikustea nahi dut eta, horrek ateak zabaltzea gustatuko litzaidake.

Azkenaldian, Rioko Joko Olinpikoen inguruan kirolaren alorrekoak ez diren gaiak ere izan ditugu hizpide; zikak kezkatzen du, eta baita ere jokoetarako beharrezkoak diren azpiegiturak amaituta ez izateak. Zer uste duzu zuk gai horien inguruan?

Egia da Pau Gasolen mailako kirolari bat Riora joan edo ez zalantzan dagoela ikusteak bere eragina duela. Hedabideak zikaren inguruko berriak zabaltzen hasi zirenean "GOT Rio 2016" proiektuaren antolatzaileei idatzi nien, eta lasai egoteko esan zidaten, bidaliko zigutela prebentzio neurrien inguruko informazioa, jarraitu beharreko aholkuak… Askotan, hedabideak ez dira oso argiak mezuetan eta horrek beldurra hedatzen du. Baina esan digutenez, ehuneko handi batek ez du igarri ere egiten ziztada, nahiz eta egia den arriskutsua izan daitekeela hainbat kasutan, haurdun dauden emakumeentzat, adibidez. Dena den, medikuari gure historiala kontatzeko eskatu digute, edozer dela ere. Alde horretatik, ongi kontrolatuta goaz.

Azpiegiturez ere hitz egin genuen "GOT Rio 2016" antolatzeko egin genuen bileran. Guri helarazi digutena da azpiegiturak garaiz amaituko direla. Arazoak izatekotan, sarreren banaketekin, garraioekin... egon daitezkeela. Baina espero dezagun dena ongi joatea. ■

OIKIAKO MANTZIZIDORTARREN **LEINUA**

Aro Modernoaren hasieran, Oikian bi leinu edo familia nabarmentzen ziren: Igartza jauregiaren jabeak ziren Zarautz Ganboa abizenekoak eta Mantzizidor oinetxearen jabetza zuen izen bereko leinua. Familia horietako jauntxoak, anderetxoak eta ondorengoak izan ziren Oikiako baserri eta ondasun gehienen jabe.

TESTUA: PEDRO ETXABE
ARGAZKIAK: JUAN LUIS ROMATET

Igartzako jauregia eta maiorazkoaren inguruan 2015eko ekaineko *Baleike* aldizkarian hitz egin genuen. Maiorazko horren ondorengoek jabetzari eutsi zioten XX. mendera arte; Mantzizidor oinetxeko oinordekoaren katea, baina, XVII. mendearen amaieran hautsi zen eta ondasunen jabetza leinutik kanpo geratu zen.

Leinu honen harmarrian eta lehen dokumentuetan Mancicidor abizena agertzen zen. Abizena idazteko era aldatzen joan da denborarekin: Mancicidor, Mancisidor, Manzisidor, Mantzisidor eta Mantzizidor, hurrenez hurren. Euskaltzaindiak azken hori jo du ontzat eta, beraz, artikulu honetan horixe erabiliko dugu.

Leinuak Oikian du jatorria, baina, denborarekin eta ezkontzak zirela medio, Debara, Bergarara, Azkoitira eta Flandriara ere zabaldu zen. Leinu honen lehen aipamenak XVI. mendearen hasierakoak dira. Lehena 1502. urtekoa da eta Pedro de Mantzizidorrek Pedro Beltran de Iraetari egindako mailegu baten berri ematen du. Bigarren aipamen batean, 1506. urtekoan, Pedro Martinez de Mantzizidor bezala ageri da, eta Zumaiako lur lauetako edo hiribildutik kanpoko lurretako prokuradore sindiko izendatu zutenekoa da. Pedro 1539. urtean hil zen eta haren seme Martin Perez de Mantzizidorrek jarraitu zuen oinetxearen jabetzarekin; infanteriako kapitaina izan zen Flandrian, eta haren alaba, Maria Perez de Mantzizidor, auzokide zen Juan Fernandez de Osangorekin zegoen ezkonduta.

Haren ondorengoetan zenbait pertsonaia aipagarri aurki ditzakegu. Joan Martinez de Mantzizidor, Pedroren biloba, ontzi kapitaina eta itsasontzigilea izan zen. Bi ontzi handi egin zituen Oikian, etxetik gertu: bata 1563an egin zuen, eta bestea 1571n; bien artean 1.350 tonako pisua izan zuten. Joan bitan ezkondu zen. Debako Catalina de Ipiztiku, lehenengo emaztearekin, izandako alaba, Ana, izan zen oinordekoa. Emakume hau Milango Estatuko armadaren kontulari nagusia zen Pedro de Aizagarekin ezkondu zen. Bikoteak hiru seme-alaba izan zituen, haietatik gazteena Diego izeneko mutila.

1613. urtean, Diego Aizaga Mantzizidor eta Francisca de Mantzizidor ezkontzeko tratua egin zuten bien gurasoek. Baina senidetasun arazoak zituztelako, Aita Santuari dispentsazio apostolikoa eskatu behar izan zioten, laugarren mailako senidetasuna zutela argudiatuz. Agiri hori lortu eta Iruñeko apezpikuaren ordezkarien aurrean bikotearen lekukoek agiriak zioena egia zela baieztatu bazuten ere, ez dirudi azkenean ezkondu zirenik. Bost urte geroago, 1618. urtean, hil zen Diego eta haren testamentuan beste emakume bat, Maria de Azcarate, eta haien alaba, Ana [mantzizidortarren leinuan Ana eta Juan/Joan izenak behin eta berriz agertzen dira] agertzen dira oinordeko. Testamentu horretan beste emakume batzuekin izandako hiru seme-alaba eta haien amak ere agertzen dira. Dirudienez, nahiko ohikoa zen garai hartan ezkontzatik kanpo izandako umeak testamentuan sartzea. Diego Aizaga Mantzizidor Bergarako alkate ere izan zen lau hilabetez.

Hasierako Pedro de Mantzizidor hark anaia gazte bat zuen, Juan Beltran de Mantzizidor. Horren biloba, Juan de Mantzizidor, izen handiko pertsonaia izan zen garai hartan. Zarauztarra jaiotzez, 1596tik 1618ra bitartean Felipe III.a erregearen Flandriako Estatu eta Gerrarako lehen idazkaria izan zen. Eragin handiko gizona zen. Flandrian aberastu eta familiako oinetxea erosteko nahia erakutsi zuen. Jabeak 100.000 dukateko prezioa jarri zion. Gehiegizko zela pentsatu eta, hura erosi ordez, Zarauzko frantziskotarren San Juan Bautista komentua eraiki zuen. Bere emazte Eugenia de Voguelerrek debozio handia zien frantziskotarrei. Eraikitze lanak 1620an amaitu ziren. Ongilea ordurako hilda zegoen, baina: Juan de Mantzizidor 1618ko otsailaren 27an hil zen Flandrian.

Leinuaren amaiera

Diego Aizaga Mantzizidorrek Maria izeneko arreba bat zuen. Emakume hori Mendaroko Lasalde Dorretxetik zetorren Manuel Lopez de Lasalde debarrarekin ezkondu zen eta, denborarekin, Mantzizidor oinetxearen izenari Lasalderena atxikitu zitzaion. Horien alaba, Ana Lasalde Aizaga Manzisidor Azkoitiko Floreaga etxeko jaunarekin ezkondu zen 1650ean. Azken hau 1668tik Loiolako jauna ere bazen. 1676an alargun geratu zen Ana, eta urtebete geroago, 1677an, ondorengorik gabe geratu zen, izandako zortzi seme-alabak hil zitzaizkiolako (horietatik lau hilabete berean hil ziren, baztangak jota). 1693. urtean hil zen eta ondorengorik ez zuenez, Loiolako santutegia izendatu zuen oinordeko unibertsal. Hor amaitu zen Mantzizidor leinuak bi mendetan zehar Oikian izan zituen ondasunen jabetza.

ari ziren garai hartan, eta itsasoz Zumaiara iristen ziren materialak gordetzeko biltegi bat eraiki zuten orube horretan. Gero baserri bihurtu zen eta Jesus izena jarri zioten. Hortik dator Jesuskoa izena. Aipatutako baserri hoiez gain, Getariako udalerrikoak diren Goiburu-zelai (Guruzelai) eta Meaga goiena (Mia goiena) ere Mantzizidorren jabetzakoak ziren.

1767an Espainiako Carlos III.a erregeak jesuitak kanporatu zituen eta haien ondasun guztiak erreinuaren jabetzara pasa ziren. Bost urte geroago, 1772an, erreinuak haien ondasunak salmentan jarri zituen. Oikiako eta inguruko zenbait ondasun, eraikin hauek barne, Ignacio de Balzola y Larrache zestoarrak erosi zituen. Balzola oinetxean jaioa, Arroa Goiko jauregia eraiki zuen. Erregearen itsas armadako ontzi alfereza zen eta Filipinetako konkistan parte hartu zuen gizonezko honek.

Oinetxea eta errota

Mantzizidor oinetxea Igartzako jauregia baino lehenago eraiki zen. XVI. menderako bazegoela esan daiteke. Biek lau isurialdeko teilatua dute; garai hartako oinetxe eta jauregi gehienen bereizgarria zen hura. 1627. urtean hobekuntza handiak izan zituen oinetxeak: teilatua eta estalki guztiak konpondu eta berritzeaz aparte, hamar metroko miradore bat eta tximiniadun gela berri bat gehitu zioten. Mende bat geroago bitan bananduta zegoen oinetxea. Zatiketa horretatik etorriko zen izen aldaketa: lehen Mantzizidor zena, Lasalde eta Lorekoa bezala ezagutuko ziren ordutik aurrera.

Mantziorko errota bezala ezagutzen den eraikina ere aspaldikoa da. Urolaren bazterrean kokatzen da, oinetxearen ondoan. Presa, ura errota azpitik pasarazteko kanala eta transmisio sistemak zituzten errotarriak ziren osagai nagusiak. Gariarekin eta artoarekin irina egiteko erabiltzen zen, ardatza bertikaleko hiru errotarri zituen eta bost zaldi potentziko indar erabilgarria. Urtean 200 egunetan egiten zuen lan eta orduko zortzi lakari (baserritar askok erabiltzen zuten neurria) ekoizteko gai zen. Presa desagertu bazen ere, errota eta kanala oraindik ikus daitezke.

Errotako presak ez zuen uzten Igartzako olara nabigatzen iristen eta horren ondorioz zenbait gatazka izan ziren: 1612. urteko dokumentu batean, 1528an, 1553an, 1557an eta 1594an izandako auziak jasotzen dira. Dokumentu horretan esaten da errota hau ibaiertzeko onena zela eta itsasgoran, beste errotek ehotzerik ez zutenean, Mantzizidorkoa lanean aritzen zela.

Eraikinek maizter ugari izan zituzten bi mende haietan, baina Ana Lasalde Mantzizidor hil ondoren, Loiolako jesuitak egin ziren haien jabe. Oinetxea eta errotaz gain, jabetzan baziren beste baserri batzuk: Otzango, Errementaldegi, Urteaga, Flores eta orain Jesuskoa baserria dagoen orubea eta alboko teileria. Jesuitak Loiolako santutegia eraikitzen

Mantzizidorko zubia eta errotaren azken jarduerak

Aipagarria da, baita ere, mantzizidortarren lurretatik igaro eta Getariarako bidean dageon zubia, gure egunetara *Mantziorko zubia* izenarekin heldu zaiguna. Elementu garrantzitsua zen, Zestoa eta Ibañarrietatik Getariara zihoan bidea bertatik pasatzen baitzen. Urola ibaia zeharkatzeko azpiegitura ere bazen. 1599an zubia hobetzeko lanak egin ziren. Ez ziren nolanahiko lanak izan. Zubiaren estribuetan, zubi begietan eta errotaren ondoko moilan egin ziren eta hamar bat harginek hartu zuten parte.

Beste erabilpen bat eman zioten errota zaharrari XX. mende hasieran: argindarra sortzea. Hala agertzen da orduko agirietan. 1960an Marcial Ucinek erosi zuen eta hurrengo urteetan eskabetxe lanetarako alokatu zuen (1965-1966). Geroztik ez da ezertarako erabili eta gaur egun egoera kaxkarrean dago *Mantziorko errota* zaharra. ■

AGENDA

UZTAILA-ABUZTUA-IRAILA

ERAKUSKETAK

Oxford aretoan

Uztailak 7-25

Ezer ez da ematen duen hori – K. Jauregi eta JR Llavori

Uztailak 29-abuztuak 15

Zazpi itsasoak, txuri beltzeko argazki lehiaketa

DEIALDIAK

Uztailak 31-Abuztuak 13

ZUMAIAKO MUSIKA JAIALDIA

Abuztuan zehar XLV.Dinastia Etxabe Pilota Txapelketaren partiduak Aitzuri pilotalekuan 22:00etan

- Finalerdiak Abuztuaren 16 eta 18an
- Eta finalak Abuztuaren 25ean.

UZTAILA

16, larunbata

20:30 Parrokian organo kontzertua

23, larunbata

Egun osoan zehar: Aita Mariren urteurreneko ekitaldiak

10:00 Txirrindulari proba: Zumaiako XXXVIII. Uda Saria - Memorial Joxe Mari Korta

23:00 Amaiako plazan kontzertua: ZUMB goes Pop

26, asteartea

19:00 Aita Marin hitzaldia: *Menditik mendira*, Oihana Kortazar

30, larunbata

17:30 KAE2 mailako traineruen estropada

20:00 Itzurun tabernan kontzertua: Greg Izor

22:30 Parrokian, organo kontzertua.

31, igandea

12:00 Traineruen estropadak: Euskotren liga eta Zumaiako XXXI. Ikurriña (TKE liga).

ABUZTUA

4, osteguna

7:30-12:00, XLI. kabra eta dontzeilen arrantza lehiaketa

6, larunbata

10:00 Arrain txikien XLII arrantza lehiaketa

Berbena Gaua

19:30 Saregileen plazan, Gala Eguneko Argazki Txokoa

20:00 Erriberan, Sara and The Monkey Men musika taldea

23:00 Eusebio Gurrutxaga plazan, ikuskizun musikala

24:00etan, Gala diskoteka Kofradian

12, ostirala, Euskal Jaia

10:00 Baserriko gaien azoka

Hala Dzipo txalapartarien saioa

10:30 Hala Gera taldearen alboka eta dultzaina doinuak

11:00 trikitilariak

12:00 Kofradian, balkoitik balkoirako bertso saioa

12:30 Udaletxean, balkoitik balkoirako bertso saioa

14:30 Herri bazkaria

Bazkal ostean, euskal kantak Joxe Mendizabalekin

18:00 Plaza bertan Maddalen eta Jagobarekin erromeria

18:30ean Alondegiaren aurrean, Joxe Mendizabalekin dantzaldia

19:00 Iraunkorrak taldearen kalejira

Ordu berean plazan, Sagardo dastaketa

23:00 Kofradian, erromeria Egan taldearekin

19, ostirala

22:30Kanpineko Orrua jatetxean, La Pulga eta konpainiarekin flamenko ikuskizuna

20, larunbata, Kuadrilla Eguna

Egunean zehar hainbat ekitaldi.

16:00etan Itzurun Arranpla igeriketa zeharkaldia

17:30ean hasita Eskubaloi triangularra (Benidorm, Bidasoa eta Zarautz)

21, igandea

12:30 Oxford aretoan, Low Riders taldearen kontzertua

27, larunbata

19:30 kale antzerkia Trapu Zaharra *Ongi etorri Findemundo*

4-28 Oikiko jaiak

IRAILA

2, ostirala

Xisterazko World Tour finalerdiak

22:30 Kanpineko Orrua jatetxean Mr. Swing jazz band ikuskizun musikala

3, larunbata

Zumaiako triatloi herrikoia eta triatloi sprinta

17, larunbata

Olarro Eguna

24-29 Artadiko jaiak

23, larunbata

Egun osoan zehar: Aita Mariren urteurreneko ekitaldiak.

PUBLIZITATEA

Itzurun taberna

KONTZERTUAK

Uztailak 14: A santo de qué

Uztailak 30: Greg Izor

Abuztuak 5: Nowhere plan

abuztuak ?: 2 bâlas

LIBURU TRUKEA

bat ekarri, bestea eraman

Itzurun Zuhaizbidea, 1. tel. 943 86 21 24

camping zumaia

Euskal Kostaldeko Geoparkeko 1. mailako kanpina
Etor zaitez gure kanpinera famili artean eta giro lasaian zure oporraz gozatzera, umeekin ekintza ugari egin ahal izango dituzu.

Ez izan zalantzarik eta HURBIL ZAITEZ!

Basusta bidea, 16
Tel. 943 860 475



- Partzelak
- Bungalowak alokairuan
- Taberna eta jatetxea
- Supermerkatu txikia
- Haur jolasak
- Bi igerileku

orrua
taberna • jatetxea
bar • restaurante

- Merendolak, Txokolatadak
- Menu zehaztuak (Talde Handiak)
- Sagardotegia (Ostiraletan 26€)
- Plater Konbinatuak
- Oilasko Erreak, baita eramateko ere
- Ostiraletan Pintxo-Pote
- Kintadak, santelmoak, koadrilak, etab
- Ogitartekoak
- Karta

Basusta bidea, 16
Tel. 943 143 582

144 cm **249€**

169 cm **299€**

EDESA
HOZKAILUA
HOME F211: 144x55 cm
HOME F221: 169x55 cm

ELECTROLUX
KONBIA
EN3854NOX
- No frost
- 200x60 cm

INOX

649€

BOSCH
KONBIA
KGN36AI22
- No frost
- 185X60 cm
- Vitafresh

INOX

669€

OPARIA!

ENDAÑETA ZUMAIA
ELEKTROGAILUAK
Erribera, 8 Tel. 943 861 694
www.endañetazumaia.com